

EUSKARAREN Berripapera

103. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko abendua

Euskonews & Media-k 100. zenbakia



Eusko Ikaskuntzaren aldizkariak 850.000 bisitari izan ditu ehun aletan

Eusko Ikaskuntzak argitaratzen duen *Euskonews & Media* astekariak 100. zenbakia bete du Interneten (www.euskonews.com). Euskal kultura eta zientziaren inguruko gaiak euskarri digitalean plazaratzea da aldizkariaren helburua. 1998. urtean argitaratu zuen lehenengoz eta harrezkero euskal kultura, ekonomia, teknologia, soziologia eta beste hainbat gai landu dira, bai artikuluen bidez eta bai elkarrizketak eginez ere. Elkarrizketatuen artean, besteak beste, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, William A. Douglass, Juan Celaya, Carmelo Bernaola, e.a. ditugu. Astekariaren 100. zenbakia dela eta, argitara eman dituen zenbaki guztiak biltzen dituen CD-Roma kaleratu du astekariak.

Argitaratzeari ekin ziotenetik 850.000 bisitari baino gehiago izan ditu aldizkariak, eta kopurua gorantz doa. Bisitarien artean, Euskal Herrikoetz gain, Europa, Asia, Afrika edo Ozeaniako erabiltzaileak daude.

Aldizkariaren 100. aleari dagokionez, Eusko Labelari buruzko monografikoa kaleratu du Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews & Media*-k. Bertan, German Muruamendiaren Eusko Labelaren zuzendariari egindako elkarrizketa da lehen irakurra.

Elhuyarren hiztegiaren argitalpen berritua

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

Orain dela lau urte argitara emandako hiztegi elebidunaren bigarren edizioa kaleratu du Elhuyarrek. Hiztegi honetan 5.000 izen berri erantsi dira, aruntak batzuk eta teknikoak bestetuz; horretaz aparte, 88.000 sarrera baino gehiago ditu (145.000 adiera, 19.000 azpisarrera eta 100.000 adibide). Hiztegiak, gainera, lehenengo edizioa egin zen garaian Euskaltzaindiak onartu gabe zituen eta gaur egun onartu dituen 20.000 hitz normalizatu ere badakartza.



Paper euskarriko argitalpenarekin batera hiztegi elektronikoa ere kaleratu da CD-ROM euskarrian, eta Interneten ere izango da: www.elhuyar.com helbidean. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren web-gunearen bidez ere (www.euskadi.net/euskara) jo ahal

izango dute erabiltzaileek hiztegi honetara.

Hiztegi berrituaren 5.000 ale kalera-tu dira oraingo edizioan. Duela lau urteko edizioari dagokionez, berriz, 30.000 ale baino gehiago saldu ziren.

EUSKARAREN Berripapera

aurkibidea

- 1 • Eusko Jaurlaritzaren eta Labayruren arteko hitzarmena
- 2 • Pertsonajea: Nikolas Ormaetxea, "Orixe"
• Breves:
Juan Zelaia saiakera sariak
Axa mixa zilarra
Irun Hiria sariak
- 3 • Kultura Sailaren eta Euskal Idazleen Elkartearen arteko hitzarmena
- 4 • *Euskonews & Media*-k 100 ale
• Elhuyarren hiztegi berritua

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute Labayru Ikastegiarekin

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak alde batetik, eta Labayru Ikastegiak bestetik, hitzarmena sinatu berri dute. Beraren xedea da erakundearen aurreranzko ekintzabidea arautzea, hiru aldeok bere gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak, ziurtatzeko. Hitzarmen honen bidez, bestalde, 1970etik hona egin duen lan eskergea aitortu zaio Labayru Ikastegiari.

Hitzarmena sinaturik Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak agindutakoa betetzeko beste urrats bat gehiago eman dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-politikan dituzten lankidetzaren harremanak areagotuz.

Labayru Ikastegia azpiegitura estrategikoa da herri-literaturan, filologia eta literatura ikerkuntzan, lexikogintzan, herri-hizkera edota literatura landua ikertu eta gizarteratzean, bai eta erakunde publiko zein pribatuetakoa euskara-planak garatzeko asmoz erabilera berezitarako alfabetatze teknikoko ikastaroak diseinatu eta garatzean ere.

Ondorioz, orotara 36.000.000 pezetako dirulaguntza eskuratuko diote herri-aginteez Labayru Ikastegiari 2000. urtean. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 24.750.000 pezeta emango dizkio eta Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, 11.250.000 pezeta.

Hitzarmenaren ezaugarriak

Sinatu den hitzarmenak berebiziko garrantzia du Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko koordinazioa areagotzeko urrats sendoa baita, eta euskalgintzarako azpiegitura estrategikoei lanerako baliabide duinagoak eskaintzeko ahalegin sendoa.

Hitzarmena lau urtean izango da indarrean, eta luza daiteke, baina hitzarmenakideen aurrekontu orokorretan ekitaldi bakoitzean aurrekontu-kreditu nahikoa eta egokia izan behar da horretarako. Horrez gain, hitzarmenakideek hala erabakitzen badute, hitzarmena beste horrenbeste urtean luzatu ahal izango da baldintza beretan.



Urteko hitzarmenak ere izenpetu eta honi atxikitzeko aukera izango da eta urteko hitzarmen horietan zehaztuko dira, hain zuzen, hitzarmenakideek urte bakoitzean bete behar dituzten eginbeharrak.

2000. urteko lanak

Labayru Ikastegiak hainbat lan burutzeko asmoa du eta horien artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke:

- Herri-literaturan: Gabon-kanta bilduma; Juan Mateo Zabalaren Irungo Sermoi Bilduma; Domingo Agirreren Sermoiak; eta *Euskeraren Iker Atalak*, filologia eta literatura aldizkariaren 8. zenbakia.
- Lexikogintzan: *Bizkaieraren Hiztegi Laburra*, Bizkaieratik baturako lexikotekaria, Atlas Etnografikoaren lexikoi tematikoak, eta *Bizkaiko Arrantzaleen Hiztegia*.
- Herri hizkeran, Zamudioko hizkera biltzea da asmoa.
- Literatura landuan, Eusebio Erkiagaren hitz-lauzko lan bilduma, Hipolito Larrakoetxea "Legoaldi"-ren Grimm anaien ipuinen edizio gaurkotua, eta *Idatz & Mintz* aldizkariaren 30 eta 31. zenbakiak.

Beste helburuetako bat da erabilera berezitarako alfabetatze teknikoko ikastaroak diseinatzeko eta garatzea, helduen euskalduntzeko didaktika programa berria egitea, eta Labayruko euskal bibliotekaren euskal hizkuntza eta literaturarekin zerikusia duten gaietan kontsulta bibliografiko orokorrak eta zehatzak egiteko zerbitzua eskaintzea.

EUSKARAREN

Berripapera

103. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko abendua

Laburrak

Juan Zelaia
saiakera sariak

Saiakera sari berriaren deialdia egin du Pamiela argitaletxeak. Edozein gairi buruz idatz daiteke eta nahi duen orok har dezake parte. Datorren abuztuaren 31n amaituko da lanak aurkezteko epea eta 75 orrialde izango ditu, gehienez, saiakerak. Epaimahaiak, berriz, azaroan emango du erabakiaren berri. Milioi bat pezetako sari bakarra emango da.

Axa mixa zilarra

Igarkizun baten hasierako formula da *Axa mixa zilarra*. Orain, berriz, kontu, kantu, igarkizun eta jolasen bilduma argitaratu du Txiliku idazleak *Axa mixa zilarra* izenburupean, Elena Odriozolaren ilustrazioak lagun. Lan elkarreagile horrek 200 igarkizun baino gehiago, hogeitau ipuin, hirurogei kanta, hogeitau hitz-joko, ahokorapiloak, jolasak eta hainbat bitxikeria bildu ditu. Euskal Herriaren jakintzaren gordailu da egungo irakurleentzat.

Irun Hiria sariak

Irun Hiria literatur sarien 31. edizioaren irabazleen izenak jakinarazi ditu Kutzak. Euskaraz idatzitakoetan, Aritz Gorrotxategiren *Kafkaren labankadak* eleberririk irabazi du; poesian, berriz, Urtzi Urrutikoetxearen *Utzi idazu karmina kentzen* izan da saritua. Gaztelaniaz, Edgardo Gonzalezen *La mujer perfecta* eleberria eta *Así en la tierra como en tu cuerpo* poesia-lana (egile ezezaguna) izan dira irabazle.



Pertsonajea

Nikolas Ormaetxea, "Orixe"

50 urte dira "Euskaldunak"
poema argitaratu zenetik

Nikolas Ormaetxea Pellejero "Orixe" Oresan jaio zen 1888ko abenduaren 6an, bertako Iriarte baserrian. Hirukia izan zen eta gurasoek Uitziko Errekalde baserriara eramane zuten, eta hango familian eman zuen haurtzaroa eta gaztaroa. 1905ean, hamazazpi urte zituela, Xabierra jo zuen jesuitek ikastera. Hamasei urte egin zituen Jesusen Lagundian, 1923an kanporatu zuten arte, hain zuzen. Sasoi horretan artikulua eta poema batzuk argitaratu zituen *Jesus'en Biotzaren Deya* eta RIEV aldizkarietan.

1923tik 1931ra bitartean Bilbon izan zen, Azkueren ondoan Euskaltzaindiko bulegoan lehenengo, eta *Euzkadi* egunkarian hurrena. Hiru liburu argitaratu zituen garai horretan: *Tormes'ko itsu-mutila* (1929) eta *Mireio* (1930) itzulpenak, eta *Santa Kruz Apaiza* (1929) nobela.

Errepublikara garaian, euskal pizkundearen gailurrean, *Euskaldunak* poema epikoa ontzeari ekin zion *Euskaltzaleak* elkarteak eskaturik. 1950ean argitaratu zen lan hori, aurretik ere bukatu eduki aren. 1934an beste poemario bat kaleratu zuen: *Barne-Muinetan*.

Gerra garaian sei hilabete eman zituen San Kristobaleko kartzelan. 1938an, 50 urte zituela, erbesteratu zuten eta ez zen itzuli 1954 arte. Garai horretako da *Urte Guziko Meza-Bezperak* (1950) liburua. Hamasei urte igaro zituen atzerrian, horietatik lau, 1950etik 1954ra, Amerikan. El Salvadorren landu zituen *Euzko-Gogoa* aldizkari artikulua, *Quito'n arrebarekin* saioa, eta *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak* liburua (nahiz eta azken hau 1956an argitaratu zen).

1954an atzera Euskal Herriratu zenean osasunez makal ibili arren, beste liburu bat eman zuen argitara: *Jainkoaren billa*. Erbestetik etxera orduko, dena den, uste ez bezalako giroarekin egin zuen topo eta erbestean bezala sentitu zen. Joxe Mari Aranalde ilobarekin eman zituen azken urteak, 1961ean Añorgan hil zen arte.



EUSKARAREN

Berripapera

101. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko abendua

Kultura Sailaren eta Euskal Idazleen
Elkartearen arteko hitzarmenaEuskal literatura gizarteko esparru guztietara
hedatzea da Elkartearen helburua

Hitzarmena sinatu berri dute Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskal Idazleen Elkarteak. Abiaburu-hitzarmen honen helburua, Euskal Idazleen Elkartearen aurreranzko ekintzabidea ziurtatzeko alde desberdinek bere gain hartzen dituzten betebeharrak, bai diruzkoak eta bai baliabidezkoak, arautzea da.


Hitzarmena lau urtez izango da indarrean; dena dela, bi aldeek hala erabakitzen badute indarraldia beste horrenbeste luzatu ahal izango da.

Abiaburu-hitzarmenari kontra egin gabe, urteko hitzarmenak izenpetuko dira, eta bertan zehaztuko dira urte bakoitzeko eginbeharrak.

Hainbat lan-asmo 2.000 urterako

2000. urteko hitzarmenari dagokionez, orotara 10.000.000 pezetako diru-laguntza eskuratuko dio Eusko Jaurlaritzak Euskal Idazleen Elkarteari. Horren arabera, berriz, honako lanak burutuko ditu Euskal Idazleen Elkarteak:


- Webgunea osatu eta finkatzea, elkartearena berarena eta bazkide bakoitzarena.
- Elkarteko langileen arduraren hanturaketa eta bulegoko lanen egituratzea.
- Informatika-azpiegituraren gaurkotzea, "Idazleak ikastetxeetan" eta antzeko programa konplexuak gogoan.
- Bazkide-kanpaina: helburua 250 bazkideetik 500era igarotzea da, idazle asko oraindik elkarteko bazkide ez dela kontuan harturik.
- "Idazleekin solasean" proiektua: euskaltegi, liburutegi eta unibertsitateetan irakurzaletasuna eragiteko proiektua, liburua irakurri dutenei idazlearekin aurrez aurre solas egiteko aukera emateko.
- Literatur-lantegiak: idazletza eta irakurletza taldeak lantzeko proiektua.
- "Komatxo artean" irratisaioa, hau da, Herri Irratiaren bidez astero gauzatzen den programa.
- Galeusca bilkura, aurtengo Lekeition, "Itsasoa" gai harturik.



Patziku Perurena




J.A. Artze



Rikardo Arregi Diaz de Heredia



Xabier Montoia



Jose Luis Otamendi



Juan Mari Lekuona

Euskal kulturaren erakundea den Idazleen Elkartearen ekimen pribatuz sortu zen 1982. urtean. Beraren helburua nagusia euskal literatura gizarteko esparru guztietara zabaltzea da.